BESTELAKO XEDAPENAK

HERRIZAINGO SAILA

5567

EBAZPENA, 2011ko urriaren 20koa, Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendariarena, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietako 1 zenbakiko Epaitegiak bideratu duen administrazioarekiko auzi-errekurtsoan (294/2011-B prozedura laburtua) interesdun izan litezkeenak deitzen dituena.

Goian azaldutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa (294/2011-B prozedura laburtua) Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendariaren 2011ko ekainaren 17ko Ebazpenaren kontra aurkeztu da; ebazpen horren bitartez, 2011ko ekainaren 9ko Ebazpenez deitutako Tiro polizialeko instruktoreen prestakuntza-aldirako eta trebakuntzaldirako onartutako izangaien zerrenda onesten da. Eta, Vitoria-Gasteziko Administrazioarekiko Auzietako 1 zenbakiko Epaitegiak espedientea bidaltzeko eskatuta, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 49.1 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz, aipatutako prozeduran interesdun izan litezkeenei dei egiten zaie, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, bederatzi eguneko epearen barruan, prozeduran ager daitezen; eta hala, egoki baderitzote, euren legezko interesen alde egin ahal dezaten.

Arkauti, 2011ko urriaren 20a.

Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendaria,
ELENA MORENO ZALDIBAR.